

Salamanca-ko udalerrriak (Txile), Los Pelambres Fundazioak eta Mondragon Unibertsitateak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

2008/09/02

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko Luxio Ugarte, Ikerketa Zuzendaria, Jose Luis Abaunz, Unibertsitate-Enpresa Harremanetarako Zuzendaria eta Iosu Lizarralde, Estrategia, Antolakuntza eta Ekintzailetasun departamentuko kideak, Salamanca-ko (Txile) udalerrria bisitatu dute ekoizpen sustapenaren arloan aholkularitza proiektu bati hasiera emateko.

Lan-egun luze baten ondoren, Gerardo Rojas alkateak, Fundación Minera Los Pelambres-eko zuzendari den Manuel Farías eta Luxio Ugartek Mondragon Unibertsitatearen izenean, hitzarmen bat sinatu zuten, non, guztiek, Salamanca-rako tokiko garapen ekonomikorako plan bat egiteko diseinuaren konpromezua hartu zuten, aldi berean, udalerrriaren Enpresa Kudeaketarako Zentru baten sorrera aurreikusten da eta baita ere Lizeo Politeknikoko kurrikulumean, zeharkako gai bezala ekintzailetasuna, berrikuntza eta bazkidetzaren bultzatzea.

Mondragon Unibertsitateko hiru adituen hitzetan, Salamanca-k, turismo, nekazaritza eta mehatze potentzialtasun handiak ditu. Une honetan behar duen bakarra, eragile ekonomiko guztien indarrak bide horretan bateratzea da dituen indarguneetatik probetxu handiena lortu ahal izateko.

